



ANDRAMARI ZORNOTZAKO IKASTOLAREN HEZKUNTZA PROIEKTUA.

1. SARRERA/JUSTIFIKAZIOA

Definizioa:

Hezkuntza proiektua ikastolaren bizitza gidatzen duen tresna da. Honek, eskolan, egiten den guztia proiektuan jasotzen diren asmoei erantzungo die. Hezkuntza proiektu baten funtzio edo eginkizun nagusiak hauek dira:

- Ikastolak dituen hezkuntza asmoak jasotzea.
- Irakaskuntza praktikak gidatzea eta orientatzea
- Haur eta gazteen hezkuntzan eragile guztion koherentziarako jarraibidea izatea

Hots, Ikastolako komunitate guztiaren ibilbidea markatzen duen tresna da. Hau guztia leku desberdinetan aurki dezakegu, hala nola, Curriculumean, antolaketan, Plan estrategikoan, urteko planean eta memorian.

Zergatik Hezkuntza Proiektua?

- Ikastola bezala identitatea finkatzeko
- Gure ikasleekin lortu nahi ditugun helburuak finkatzeko eta hauek lortzeko beharko ditugun erak adosteko
- Zer egingo dugun eta zelan egingo dugun antolatzeko





Zein dira bere eragileak?

Pertsonaren hezkuntzan, eskolak bezain beste, familiak eta gizarteak eragiten dute. Beraz, gizartea bera hezitzailea izatea lortzen da helburu. Ondorioz, Ikastola bakoitzak bere errealitateari egokitutako proiektua izango du. Bere herri identitatea kontutan izan eta bere horretan sustraituko du bere bizitza, bizi duen gizartearen eragile aktiboa bihurtuz.

Hala bada, hezkuntza komunitate guztia izango da bere eragile: guraso, langile, ikasle, etab. Hezkuntza komunitateko kide guztien partaidetzaren arabera hezkuntza proiektua eraginkorra izatea lortuko baitu.

2. EGOERA.

LEHENALDIA:

Andramari Zornotzako Ikastola sortzeko lehen urratsak 60. hamarkadaren erdialdera eman ziren. Izan ere, sasoi hartan, zenbait gurasoren ekimenez, Miren Artetxe andereñoaren etxean lehendabiziko euskarazko klaseak ematen hasi ziren. Amorebieta-Etxanoko herri ekimen honi esker, garai hartako umeez euskaraz ikasteko aukera izan zuten.

Gure bilakaera bakarrik izan da posible guraso eta langileen konpromisoari esker eta berauen lekukoa hartu dutenei ere.



ANDRAMARI
ZORNOTZAKO IKASTOLA

Larrea z/g 48340 Zornotza
94 673 29 50 • zornotza@ikastola.eus
www.zornotzaikastola.eus

Ikastola herri ekimena den heinean, herritik sortua eta bertoko gizabanako guztiek parte hartzea izan zuen. Horren adibide, hurrengo urratsa El Karmelo Ikastetxean eman zen, ikasgela batzuk utzi zizkigula. Ikasgelok gurasoek eurek egokitu zituzten Ikastola hasiberriari ikastetxe baten antzeko bizitza emanez.

Baimen ofizialik eza saihesten ahalegindu behar izan zen, garai hartako Irakaskuntzaren Ikuskaritzak jarritako arazoak zirela eta. Horren ondorioz, ikasgelak lekuz aldatu behar izan ziren Berrio-Ochoa akademia eta abadetxearen behekoetatik pasatuz, klandestinitate hori parrokiaren eta akademia horren babespean bizitzen saiatuz

Momentu horretatik aurrera, Ikastola ofizializatzeko ahalegin serioagoak hasi ziren. Horretarako, sasoi hartan Zornotzako parrokoa Ikastolaren titular izendatu zen baimenak lortu ahal izateko. Honekin ikastetxe ez estatal bezala, irakaskuntza emateko behin-behineko baimena lortu genuen.

1972an, Ikastolen mugimenduak zeukan kemenari esker, guraso talde batek "Cooperativa de Enseñanza Colegio ANDRA MARI" sortu zuen, baina prekariotasunez jarraitu zen lanean ikastolaren beraren lokalik ezaz eta bazkide kopurua txikia zelako, besteak beste. Azkenean, 1975ean, lortu zen irakaskuntza emateko titularitatea Kooperatibarena izatea. Hemendik aurrera hasi zen Ikastolaren benetako bizitza, bazkideak irabaziz, kapital ekarpenak lortuz, liburu ofizialak eta abar.

Azkenik, errealitatea bihurtu zen hainbeste ilusio eta ahaleginez guraso talde batek 16 urte arinago hasitako lanaren helburua.

93 eta 94 urte artean, gure ikastegian haustura soziala gertatu zen Ikastolek sare publikoan konfluentzia egin ala pribatuan jarraitzeaz izandako eztabaidaren ondorioz. Horrek ikasle galera eta matrikulazio jaitsiera nabarmena ekarri zizkigun.





93/94 ikasturtean, eztabaida amaitu ondoren eta Zuzendaritza Batzorde guztiz berriarekin, Ikastolaren bideragarritasun-plan berria egin behar izan zen. Kreditu hipotekarioak BBK eta Lankide Aurrezki Kutxarekin negoziatu ondoren, akordio batera heltzea lortu zen. Era berean, beharrezko plantilako berregokitzapenak egin ziren ikastolako bideragarritasun-proiektua aurrera eramateko. Horrek guztiak kostu ekonomiko handia suposatu zuen baina zorionez apurka-apurka gaindituz joan gara.

94an, haurtzaindegiko lehenengo gela irekitzeko egokitze-lanak hasi ziren. Harrezkero, handiagotu zen eskaerari erantzunez eta gaur egun zazpi gela ditugu banaturik etapen arabera.

95ean, DBHren ezarpena dela eta, berori eman ahal izateko baimena eskatu zen. Momentu horretatik aurrera, baimenen tramitazioak hasi ziren espazioak egokitzeko eta bigarren hezkuntzarako ikasgela berriak eraikitzeko, teknologia-gelak, musika-gelaren egokipena, hizkuntza-gelaren sorkuntza, informatika-gela, jantokia handitzea eta abar.

96/97 ikasturtearen amaieran, gure seme-alabek DBHtik aurrera ere Ikastolen proiektu batekin ikasketak burutzen jarraitzea nahi da. Hori dela eta, IBAIZABAL proiektua sortu zen Txintxirri, Kurutziaga, Andra Mari eta R. M. Azkue Ikastolen artean. Geroxeago Ondarroakoa ere atxeki zitzaion proiektuari.

2005 urtean, herri eskaerari erantzuna mena beharrean aurkitu ginen eta bigarren lerroko apustua egin genuen. Eusko Jaurlaritzako finantziazioa jaso ez arren, Zornotzarrek ikastolarekiko apustua egin zuten eta denon esfortzu ekonomikoari esker, erronka berriari aurre egin genion.

Erronka berri hau bideratzeko 2008an IBILALDIA ospatu genuen. Honek ikastola eta Amorebieta-Etxanoren arteko hartu-eman indartzeko balio izan zuelarik; bai herriak, zein ikastolak onurak jaso genituelarik.



Kooperatiba izaera bera ikastolaren izaerarekin lotuta dago.

Goian aipatu bezala, guraso talde batek sortutako herri ekimena da ikastola eta hori islatzeko modu bakarra kooperatiba izaera izan zen eta da. **Kooperatiba autogestio partizipatiboa, demokratikoa eta solidarioa** aldarrikatzen duen mugimendua da.

Ikastola herrira zabalik dagoen gurasoen hezkuntza elkarte da.

Adibidez, Ikastolako frontoia edozeinek erabili dezake. Horren adierazgarri da urtero herriko Eskupilota elkartearekin, LAGUN ONAK, herri guztiko umeentzako adosten dugun ikasturteroko formakuntza.

Ikastola handitzeak arnas gune ikaragarria eman digu eta bide batez, herriarentzako hezkuntza, kultura eta kirol guneen gehikuntza. Herritik gatozen heinean, herriarentzako zabalik baikaude. Aukera izango dugu herriko kirol, euskara eta kultur elkarteekin ororen ongia bideratzeko, denentzako espazioa izateko.

Egun, erronka honi aurre egiteko obran murgilduta gaude. Behin udalarekin adostasun batera helduta, proiektua martxan jartzeko aukera dugu. Hau guztia herritar eta udalarekin bat eginez lortu dugu.

ORAINA:

0-16 urte bitarteko kalitatezko hezkuntza euskalduna eskaintzen dugu. Biharko Euskaldun arduratsu eta prestatuak heztea da gure helburua. Azken xedea pertsonak bere osotasunean heztea da, hiru eremu nagusietan: euskalduntasunean, norberaren garapenari dagokionez eta gizarte kide bezala. Euskalduntasunetik mundura zabalik kokatzen gara, identitatea eta aniztasuna uztartuz, bizikidetzarako baldintza egokiak eraikiz. "Herritar kompetenteak hezi", horixe bera da geure azken xedea.



Herriak 18.600 biztanle inguru ditu. Eremu euskalduna dela esan daiteke nahiz eta euskararen erabilera mugatua izan. Herrian beste lau eskola daude.

Ikastolako bazkideak Zornotzako biztanleak dira gehienbat nahiz eta inguru herrietatik (Bedia, Lemoa, Igorre, Usansolo) ere etorri eta autobus zerbitzua antolatzen da horren arabera.

Pedagogia aktiboa gure hautu metodologikoa.

✚ Kooperatiba bat gara, Herri Onurako Kooperatiba. Euskadiko Irakaskuntza Kooperatiben Federazioko kideak gara. 2005eko irailean Euskal Hezkuntza sistemaren inguruan egindako proposamenarekin bat egiten dugu. Ikastola Zornotzar guztiontzat zabalik dagoen proiektua da eta geure jarduerak, irabazi asmorik gabeko erakunde batenak izanik, aukera paregabea ematen dio Zornotzar guztioi era askean beraien gustuko hezkuntza aukera dezaten.

✚ Ikastolen mugimenduaren baitan kokatzen gara, gaur egun Euskal Herriko Ikastolak Europar kooperatibaren bazkide garelarik.

✚ Geure proiektuaren luzapen naturala Durangoko Ibaizabal Ikastolan daukagu (Elorrioko Txintxirri, Durangoko Kurutzia, Lekeitioko RM^o Azkue, eta Ondarruko Zubi Zahar Ikastolekin batera), non ikasleek batxilergoa edo formakuntza zikloak burutzeko aukera daukaten.

✚ Ikaslea da ikastolako protagonista irakaslea gidaria eta bidelaguna delarik, horra hor egungo irakaslearen rol aldaketa nabaria.



3. NORTASUNA ETA EZAUGARRIAK.

3.1. IKASTOLAREN BERARIAZKO IZAERA

Ikastolak herritik sortuak eta herriarentzat eginak dira. Auzolana dugu oinarri: gure helburuak lortzeko baliabide eta gutako guztion lanerako eredu. Andramarin etorkizuneko zornotzarrak hezten gabilta: Zornotza euskalduna, prestatua, garaian garaikoa eta munduarekin arduratsua izan dadin egiten dugu lan. Eta ikastetxe barruan dihardugun jarrera berberarekin, herrian ere hainbat egitasmotan parte hartzen dugu beste herritar eta eragile batzuekin elkarlanean.

XEDEA: ZER GARA?

✓ Zornotzan herri ekimenaren bidez sortutako irabazi-asmorik gabeko hezkuntzarako guraso-kooperatiba bat gara, euskalduna, anitza eta berritzailea, non, langileen etengabeko prestakuntzaren bitartez eta baliabideen kudeaketa eragingarria erabiliz, pertsonak osotasunean bizitzarako hezten ditugu. Hezkuntza komunitateak, denon elkarlanarekin ikastola eta ikastolaren izaera bizirik mantentzea da gure misioa. Ikasleentzat eta gauden komunitatearentzat eredu izaten, kalitatezko euskal hezkuntza mantentzen, euren etorkizunerako bizitzari aurre egiteko gaitasuna izanez.

IKUSPEGIA: ZER IZAN NAHI DUGU?

✓ Andramari Zornotzako Ikastolak kalitatezko hezkuntza euskalduna eta berritzailea eskaintzen duen eta herrian ondo errotutako hezkuntzarako guraso-kooperatiba irekia izan nahi du, baliabideen kudeaketa eraginkorrarekin, gizartea, ingurumena eta familiaz konprometituta dagoena, eta pertsonak ardatz gisa izanik, ikasleak bere osotasunean hezi nahi dituen.



BALOREAK: NOLAKOAK IZAN NAHI DUGU?

► **PERTSONA (NORBERA):** Bizitza fisikoa, naturala eta sozialean, pertsona askeak izateko bidean, erantzukizunetarako prest eta norbere gaitasun (ahalmen) guztiei etekina ateratzeko gai izatea.

AUTONOMOA: Norbere pertsonarekiko irudi positiboa izanik, bizitzak ezarritako erronkei aurre egin ahal izateko baliabidez hornituta eta hauek kritikotasunez eta erantzukizunez erabiltzeko gai izatea.

ARDURATSUA: Bere burua eta inguratzen dion guztiarekiko aurrean erantzukizunez jokatzeko ahalmena izatea (naturarekiko, gizartearekiko, besteekiko, ...).

EKINTZAILEA: Bizitzak ezarritako erronkei aurre egin ahal izateko, baliabideak bilatzeko gai izatea.

► **IDENTITATEA:** Euskal lurraldea, hizkuntza, ohitura eta kultura aintzat hartu eta berezkoak egiten dituenak.

EUSKALDUNA: Euskal herriaren lurraldetasunean duen hizkuntza jakina, beronen erabilera bermatuko duena eta euskal kultura ezagutu, bizi, maitatu, sentitu, gozatu eta parte hartzen duena. Non? Ikastolan, lanean, etxean, jolasean; egunerokotasunean, maitatuz, erabiliz, irakatsiz eta bizitzarako tresna bezala erabiliko dena Zornotzatik Euskal Herrira eta Euskal Herritik mundura.





► **JENDARTEA:** Bizitza fisikoa, naturala eta sozialean agertu daitezken erronka ezberdinen aurrean, taldean bizi eta taldean lan egiteko gai izatea modu aktibo, parekoan eta errespetuzkoan.

ANITZA: Gizartea osatzen duten agente guztien arteko harreman ireki eta inklusiboak izatea, era berean kultura eta ideia ezberdinetara zabalik egotea. (genero berdintasunean eta arraza edota ideia desberdinak kontuan hartzen dituen)

KRITIKOA: Inguratzen dizkion egoeren, harremanen, gertakizunen, informazio ezberdinen hausnarketa egin, ondorioztatu eta aniztasuna kontutan hartuz erabakiak hartzeko gaitasuna izatea.

KOOPERATIBOA: Besteekin hartu emanak izanik, hauek garatzea eta lankidetzan, elkartasunean eta osotasunean kontsentsuak eta konpromisoak hartzeko gai izatea.

3.2. IKASTOLEN KOLEKTIBOAREN IZAERA KOMUNA

A. Ikastolek **hezkuntza-sarea** eratua dute, **ikastolen titularren antolakuntza** alegia, beren proiektu komuna garatzeko, ikastola bakoitzari bere berariazko proiektua garatzen laguntzeko, ikastolak talde edo kolektibo gisa ordezkatzeko eta hezkuntza euskalduna ikastolen esparrutik harago eragiteko.

B. Ikastolen taldeak edo kolektiboak Euskal Herriarekin, Euskararen Herrialdearekin, identifikatzen du bere jarduera-esparrua eta hizkuntza-komunitate orok bere kultura-ondarea muga administratiboetatik harago transmititu ahal izateko irakaskuntza antolatzeko duen eskubidearen arabera jarduten du.



C. Ikastolen taldea edo kolektiboa, **lankidetzaren bidez kudeatutako antolakuntza** da eta bere berariazko joko-arauak ditu, ikastola bakoitzeko hezkuntza-komunitateak bultzatutako elkarketa eta ekimen bidezko kultura baten fruitu dena, hezkuntza-proiektu komunarekin konprometituta dauden kolektiboko profesionalak bermatu eta bultzatua.

D. Ikastolen kolektiboa, duen izaera herritarra dela bide, **subjektu eraginkor eta lankide da Euskal Herriaren garapenean** eta bere berariazko hezkuntza-sistemearenean, Euskararen garapenean eta bere kulturarenean, beste gizarte-, hezkuntza- eta kultura-eragile batzuekin batera dihardu eta bere lehentasunezko egitarauak, Euskal Curriculumaren definizioa eta aplikazioa, Euskal Eskola eta Euskal Unibertsitatea dira. Horretarako, euskal hezkuntza-sistemearen kontzeptu berri bat garatzen ari da, gaur egungo administrazio-zatiketetatik eta botere publikoen mendekotasunezko eredu publikoetatik harago doana eta gaurko estatuen eredu publiko administraziozaleekiko aukera berri bat eskaintzen duena.

E. Ikastolen taldeak edo kolektiboak, **oinarrizko curriculum** komuna partekatzen du eta, curriculum horrek, bere hezkuntza-ereduari eta euskal curriculum espezifikoari dagozkion edukiak islatzen dituzten adostutako lerro nagusiak ditu bere baitan

F. Ikastolen hezkuntza-sareak, bere **berariazko zerbitzu kolektiboen multzoa** du.

F.1. Ikastolen arteko komunikazio estu eta sendoarekin antolatuta dago sarea eta horrek ematen ditu ezagutzera testuinguru zehatz bakoitzean sortzen diren beharrianak eta eskatutako zerbitzu kolektibo gisa identifikatu, planifikatu, garatu eta inplementatzen direnak, gero beren emaitzen berri emanez.



F.2. Zerbitzu horiek ikastolek onetsi eta ebaluatutako izaten dira adostutako gobernu-organoen bidez egindako partaidetza eragilearen bitartez, izan ere, organo horietan esku hartzen baitute ikastolek hautatutako ordezkariak eta izendatutako eginkizunen betekizunak ebaluatutako izaten dira.

F.3 Beren irispeneren arabera, zerbitzu kolektiboak ikastoletara bakarrik bideratuko dira edota hezkuntza euskalduna eragiteko ikastoletatik harago doan hedapena izateko burutuko dira.

F.4 Zerbitzu kolektiboan ikerkuntza-, garapen-, berrikuntza eta kudeaketa-lanak, beren kompetentziari, ikastolen izaera, misio eta ikuspegi komunekiko nahiz erabakitako planak betetzeko eta gobernu-organoekin elkarlana egiteko duten konpromisoa gehitzen dioten profesionalen bitartez egiten dira.

4. IKASTOLEN KOLEKTIBOAREN PRINTZIPIOAK.

4.1. OINARRIZKO CURRÍCULUMAREN PRINTZIPIOAK

A. Giza eskubideen eta oinarrizko askatasunen bultzatzaile.

Ikastolek berena egiten dute Giza Eskubideen Aitorpen Unibertsalaren (1948) 26. artikulua eredu edukia, hain zuzen ere honako hauek dakartzana: hezkuntza-eskubidea eta obligazioa nahiz oinarrizko hezkuntza-aldian gutxienez izan beharreko doakotasuna; giza nortasuna bere osotasunean garatzeko helburua eta giza eskubideekiko eta oinarrizko askatasunekiko



errespetua sendotzea; eta familiak lehentasun osoz beren seme-alabei eman nahi dien hezkuntza mota aukeratzeko duen eskubidea.

B.- Eskola barneratzailea edo denentzako eskola. (Eskola inklusiboa).

Ikastolak, gaur egungo euskal gizarteak ezaugarritzat dituen kultur aniztasunaren eta ugartitasunaren testuinguruan eta hori ugaltzeko dagoen joeraren aurrean, denentzako izango den eskola barneratzaile eta anitzarekin identifikatzen dira, Euskal Herrian presente dauden genero, balore, gizarte-portaera, portaera politiko eta erlijiosoak beren barne hartuko dituenarekin alegia eta eredu hori konpentsatzaile gertatzen da sortzen dituen ikasketazailtasunekiko, irekia jatorri, gizarte-maila nahiz ekonomia-maila desberdinetako pertsonentzat eta aukera-berdintasuna ziurtatzeko ahalegina egiten du, bertan dabilzan ikasleek, trinkotuta eta Euskal Herrian eta Europan txertatuta nahiz munduarekin harremanetan egongo den euskal gizartearen bizitzaren jakin dezaten.

C.- Pertsona- eta gizarte-eredua.

C.1. Hezkuntza-jardunbidearen helburua gizakiaren kompetentziak mailarik handienera garatzea lortzea dela ulertzen dugu, bere izaera hirukoitz eta bereiztezinean: norbanako subjektu gisa, gizarteko kide edo partaide gisa eta naturako partaide gisa. Ikuspegi horretatik esan daiteke, hezkuntzaren helburuak lortu izana adierazten duten parametroak, hau da, heldutasuna eta bizitza bete bezalakoak, norbanako subjektu moduan kompetentzien garapenean lortutako mailak eta gizartearen garapenean eta hobekuntzan izandako





txertakuntzak, identifikazioak eta elkarlanak nahiz natura zaintzeko eta berari eusteko egindako ekarpenak zehaztuta datozela.

C.2. Osotasunezko hezkuntza horren ikuspegiarekin koherente izanik, ikastolek, Euskal Curriculumean definitutako oinarritzko konpetentzien garapena bultzatuko dute, hala nola, ikasten eta pentsatzen ikastea, komunikatzen ikastea, elkarrekin bizi izaten ikastea, norbera izaten ikastea eta egiten eta ekiten ikastea, guztiak ere diziplina-esparru guztietan eta bizitzaren esperientzietan txertatuz, horrela, bizitzarako beharrezkoak eta ezinbestekoak diren konpetentziak lortzeko, Europako Parlamentuaren gomendioetan definitutakoaren arabera.

C.3. Ikastola bakoitzak etorkizunerako bere hezkuntza-proiektua planteatzen du giza garapenerako hezkuntzaren bitartez eta aldi berean erantzuten die, alde batetik unibertsitateko nahiz lanbide-heziketako goi-mailako ikasketetarako prestakuntza-eskaerei eta bestetik ikasleak oinarri sendoekin prestatzen ditu bizitzaren ibilbidean gizarteak egingo dizkien eskaerei erantzuna eman ahal izan diezaien pertsona eraginkor moduan, beren bizitza zentzumenez gidatzeko, beren etorkizuna hautatzeko eta beren hautaketak arduraz egiteko gai izan daitezen.

C.4. Zientzia-ezagutzen garapena eta tresna teknikoen ekoizpena, nahiz informaziorako eta ezagutzarako sarbidea indar handiko berrikuntza- eta aldaketa-elementu diren gizarteetan, ikastolek beren osotasunezko hezkuntzaren planteamenduan, Zientzien eta Teknologiaren nahiz ICTren esparruetan konpetentziak garatzea sartu beharrean daude.





C.5. Gizonezkoen eta emakumezkoen arteko hezkuntzako elkarbizitzaren eredu baten oinarri gisa, eskubideetan genero-berdintasuna aldeztuko duten jarrerak eta portaerak bultzatuko dira.

D.- Euskal eskola.

D.1. Komunitate edo erkidego orok, herri orok, bere kultura bere luze zabal osoan gorde, bizi, birsortu eta garatzeko nahiz bere kideei familiaren, eskolaren eta gainerako hedabideen bitartez transmititzeko eskubidea eta betebeharra ditu. Ikastola-mugimendua, euskal hizkuntza eta kultura transmititzeko, erabilpen eraginkorra egiteko, garatzeko eta indartzeko konpromisoarekin sortu zen eta hori du ezaugarritzat, beti ere beste kultura batzuei ere irekia, ukipeneko auzo-kulturei batez ere, kulturartekotasunezko hezkuntza-planteamenduak eginez eta gauzatuz.

D.2. Ikastolek, euskal hizkuntza eta kultura erreferentzia-ardatz moduan hartuta, hizkuntzen eta kulturen ikuspegi txertatzailea eragiten dute eta hizkuntza- eta kultura-konpetentziak osagarritasun-ikuspegiarekin ulertzen dituzte.

D.3. Ikastola bakoitzak, Euskararen Lurralde gisa hartzen du Euskal Herria, bere historia Pirineotako bi isurialdeetan hedatzen den mendebaldetik mugarik gabeko jendez osatutako espazio unibertsalera irekita ekarpen desberdinekin eraiki duen eta eraikitzen ari den lurraldetzat, lehendik definitutako baina etengabe berritzen eta aberasten ari diren hizkuntza- eta kultura-arrasto berezitueta oinarritua.





Gainera, bere hezkuntza-lana gauzatzeko, ikastola bakoitzak, Euskal Herria izena, Euskaltzaindiak 2003. urteaz geroztik erabiltzen duen zentzu berean erabiltzen du, hots, Arabak, Bizkaiak, Gipuzkoak, Lapurdik, Nafarroak (Behereak eta Garaiak) eta Zuberoak osatzen duten lurralde-multzoa identifikatzeko.

4.2 ANTOLAKUNTZA-EGITURAREN PRINTZIPIOAK

A. Lankidetzaren eta elkar-mendekotasun-printzipioa.

Ikastola bakoitza ikastolen taldeko edo kolektiboko gainerako ikastolekin elkartzea, hezkuntza-sare bat eratzeko eta elkar sendotzeko beren artean ezarritako elkar-mendekotasun- eta lankidetzaren loturei esker da egingarri eta ikastolen kolektiboaren eta ikastola bakoitzaren talde-arrakastaren emaitza da.

B. Elkarlotura- eta artikulazio-printzipioa.

Ikastolen taldeak edo kolektiboak dinamizatu egiten du bere hezkuntza-sarea (ikastola bakarrak, lurraldeko ikastolak eta lurralde desberdinetako ikastolak) bere maila guztietan ongi elkarlotuta eta artikulatuta egon dadin eta, horrela, ikastolen arteko informazio- eta komunikazio-harremanen fluxua norabide guztietan gauzaten da.



C. Aniztasun- eta malgutasun-printzipioa.

Ikastola bakoitza berezia da eta ikastolen estatus juridikoak errealitate juridiko-administratibo desberdinek baldintzatuta daude. Ugartitasun horretatik abiatuta, egoera desberdin eta aldakorrei malgutasunez egokitzeko ikastola bakoitzak duen ahalmena batetik eta malgutasun eta ugartitasun horiek, bai antolakuntzan eta baita zerbitzuen arloan ere, ikastola bakoitzaren berezitasunei egokitzuz eta doituz etengabe ari den berariazko hezkuntza-sare batean sartuta egotea bestetik, ikastola-taldearen edo kolektiboaren garapena eutsigarri izateko bermerik onenak dira.

D. Etengabeko hobekuntzaren printzipioa.

Ikastolen taldeak edo kolektiboak, etengabe aldatzen ari den munduan era jarraikian ikasi eta berritzeko gai izango den eta aldaketarako, berrikuntzarako eta etengabeko hobekuntzarako prestatutako hezkuntza-sare eran jardungo duen egituraren aukera egiten du.

E. Enpresa-zentzuaren printzipioa.

Ikastolen taldeak edo kolektiboak eraginkortasun-irizpideak erabiltzen ditu iritsi nahi dituen emaitzak lortzeko, bai elkartutako ikastolen beharrianak asebetetzeari dagokionez, bai gainerako bezeroei erantzuteari dagokionez eta baita bere berariazko kudeaketa-sistemei erantzuteari dagokionez ere.





F. Tokiko elkarreraginaren eta elkarreragin unibertsalaren printzipioa.

Ikastolen taldeak edo kolektiboak lankidetzaharremanak eta itunak ezarriak ditu hezkuntza-, kultura- eta gizarte-arlo desberdinetako beste agente batzuekin, beti ere interes komuneko proiektuen eta egitarauen garapenaren inguruan. Horien artean lehentasunezkoak dira egitarau hauek: tokian tokiko arloan Euskal Curriculumak, Euskal Eskola eta Euskal Unibertsitatea eta arlo unibertsalean, beren hizkuntza duten eta/edo beren hezkuntza-sistema izan nahi duten herri eta nazioetako elkarte eta erakundeekin, Europako Batasunaren esparruan arreta berezia jarriz.

G. Elkarteko bazkide den ikastolari arreta eskaintzeko printzipioa.

Ikastolen taldea edo kolektiboa sentibera da elkartekoa den ikastola bakoitzarekiko eta berarekin lankidetzan doitzen ditu bere zerbitzuak haren berezitasunetara.

5. HEZKUNTZA EREDUA.

Oinarri eta ardatz dugun Euskal Curriculumak garatzeko, Europa izan da gure erreferentzia, bertan aurkitu baitugu pedagogia korrante aurrerazaleak eta eskola eredu berritzaileak. Erreferentzia pedagogiko berritzaile horiek kontuan hartuta, gure hezkuntza-xedeak erdiestea ahalbideratzen duen, konpetentzien arabeko hezkuntza eredu pedagogiko propioa eta aurrerakoia dugu **Andramari Ikastolako pedagogia aktiboa**.



ELGAren DeSeCo (2005) dokumentuaren arabera, “testuinguru jakin bateko eskaera konplexuei erantzuteko abileziak dira konpetentziak, eta horretan, zenbait baliabide psiko-sozial (tarlean, baita ezagutzak, trebetasunak eta jarrerak ere) hartzen ditu oinarri”.

Oinarrizko konpetentziak dira, Europako Erkidegoen Batzordeak proposatutakoaren arabera (2006), “persona guztiak behar dituztenak beren burua errealizatzeko eta garatzeko, bai eta inklusio sozialerako eta herritartasun aktiborako ere”.

5.1.-OINARRIZKO KONPETENTZIA OROKORRAK





Bizitzako arazo edo erronkei eraginkortasunez erantzun ahal izateko beharrezkoak dira oinarrizko konpetentzia orokorrak: **Izaten ikastea, Elkarrekin bizitzen ikastea, Ikasten eta pentsatzen ikastea, Komunikatzen ikastea eta Egiten eta ekiten ikastea.**

Bizitza osorako hezkuntzaren funtsezko elementuak dira eta norbere esperientzien eta gizarte eskakizunen arabera, garatzen eta moldatzen joaten da pertsona bizitzan zehar konpetentzia hauek.

Euskal Curriculumean oinarritutako gure hezkuntza-ereduaren ezaugarri nagusiak:

- Ikaslearen irteera-profilean oinarritutako curriculumak: Oinarrizko konpetentziak.
- Euskal curriculumaren kultur ibilbidean oinarritutako curriculumak.
- Konpetentzietan oinarritutako curriculumak: Integrazioaren pedagogia.
- Prozedura metadisziplinarrak arlo guztietan integratzen dituen curriculumak.
- Euskara ardatz hartuta, eleaniztasuna bideratu eta IKT konpetentzia arlo guztietan integratzen duen curriculumak.

5.2-PEDAGOGIA AKTIBOA

Ikuspegi globalari erantzungo dioten egoera, jarduera, erronka eta testuinguruak eskainiko dituenak.

Gure helburu nagusia haurren ongizatea bermatzea da. Haurrengan sinisten dugu. Haurra gaitasunez betetako gizaki bat dela badakigu eta hauek eskaintzen zaion testuinguruaren



arabera garatuko ditu. Haurra izango da bere heziketa prozesuaren protagonista eta gure lana, umeak berezkoak dituen gaitasunak azalertzeko eta modu osasuntsuenean garatzeko testuinguruak eskaintzea izango da. Haurraren bidelagun izango gara. Gizakion testuingurua, alde batetik, naturala da, mendeetan antzera mantendu dena; bestetik, ordea, guk sortutakoa artifiziala da. Gure estrategiak pertsona munduan agertu zirenekoak dira. Horietako batzuk baliagarriak zaizkigu guk sortutako testuinguru berrietan bizirauteko, beste batzuk bestalde, talka egiten dute. Gure zelulek, gure barne jarioek, gure sistemek eta organoek, sintonia edo erritmo baretze - orekatze bat izaten dutelako, naturarekin harremanetan dauden gune eta uneetan sinisten dugu.

Gure zentzumenen funtzionamenduak horrelako guneetan biziberritu egiten dira eta ondorioz bizi ditugun emozioak ere sakonago eta garbiago heltzen zaizkigu.

Beraz, zer da pedagogia aktiboarekin bilatzen duguna:

- 1- Haurraren autonomia sustatzea.
- 2- Erritmo biologikoa errespetatzea.
- 3- Sentimenduak entzutea.
- 4- Adinen arteko interkomunikazioa.
- 5- Ikastola inklusiboa.
- 6- Ikasteko komunitatea sortzea.
- 7- Espazioaren eta materialaren eraginkortasuna.





5.3-ANDRAMARI ZORNOTZAKO IKASTOLA PROIEKTUAREN ARDATZAK

L1: Kalitatezko hezkuntza euskalduna

+ Kalitatezko hezkuntza euskalduna eskaintzea. Euskara eta euskal kulturaren transmisioan sustraiak finko erroturik, ikuspegi zabal batera proiektatzen gara, identitate propioaren eta gainontzekoen arteko izaera orekatuz, hau da, euskalduntasunetik abiatuta, geurea ezagutuz, mundura zabalik kokatzen gaituen izaera, mugak saihestuz eta giza balore unibertsalez hornituriko pertsonak heziz.

+ Kalitatea eta ekitatearen oreka bermatu nahi dugu, aniztasuna delako aberasten gaituena. Ikastolak eskola eredu inklusiboa (ume guztiak hartzen ditugu) eta ekitatiboa (bakoitzari behar duen arreta ematea) eskaintzen du. Ikastolan balizko gizarte zuzen baten ikaskuntza burutu nahi dugu eta horretarako edozein gizarte baten baitan dauden elementu guztiak izateari positiboa deritzogu. Ikastola batek, gizarte txiki baten funtzionamendua izan behar du, horretan datza bere eraginkortasuna. Antzerkia errealitatearekiko dena, horixe bera da Ikastola gizartearekiko.

+ Baloretan heztea. Baloreak eguneroko jardueran barneratzen diren jokabideak eta pentsaerak dira eta edozein egoera aproposa izan daiteke balore horiek barneratzeko. Helduek "munduan egoteko dituzten moduak heziketarako baliagarriak diren ereduak dira. Etengabeko heziketa da hauxe. Hala ere, ekintza bereziak ere ezinbestekoak dira hezkuntza eraginkorra bermatzeko, eta ikastolaren ardua da baloreak lantzeko egoera aberatsak antolatzea.



✚ Emitza akademiko egokiak lortu nahi ditugu, nola ez, baina helburu hau txiki gelditzen zaigu ez baikara ikastola selektibo bat non gaitasun handiak dituzten ikasleak soilik hezten ditugun, ez; benetan gura duguna pertsonak heztea da, gaitasun ezberdinekin baina bere osotasunean, baloretan ondo horniturik eta akademikoki beraien gaitasunen arabera garapen egokia lortzen dutelarik. Pertsona orekatuak hezi nahi ditugu, ikasle moduan onak edo ez hain onak izanda, pertsona gisa balorazio bikaina jasoko luketen horietakoak.

✚ Ebaluazio hezigarria dugu helburu. Ikaslea bere ikaskuntza prozesuaren protagonista izan behar du eta irakasleak bidelagun izanik, testuinguru egokia eskaini behar diogu kompetentzien garapena lor dezan.

Hezitzailea bidelagun izanik, pertsona aktiboak, beraien ikasketa prozesuak bideratuko dituztenak jartzen ditugu ardatz, testuinguru aproposak eskainiz. Guzti hau ahalbideratzeko, **etengabeko hobekuntzan oinarritutako ebaluazio prozesua** diseinatzen gabilta; momentu guztian informazio eta datu bilketa jasotzera behartuta izanik haur zein gazte bakoitzari hobeto egokitzen zaion testuingurua eskaini ahal izateko.

Ebaluazio prozesua ez da azterketetara eta kalifikazioetara mugatzen, bai ordea, heziketa prozesua osatzen duten osagai gehien jarraipenean oinarritzen da: irakasleak, hezitzaileak, espazioak, metodologia, baliabide materialak, familiarekiko hartu-emanak... Hiru urratsetan egiten dugu elementu horien guztien ebaluazioa: informazioa biltzen da, horren azterketa eta balorazioa, eta, azkenik, erabakiak hartzen ditugu.

✚ Langileriaren kompetentzia eta egonkortasuna irakaskuntza sendo baten oinarria dira eta langileriaren adostasuna Hezkuntza Proiektuarekiko ezinbesteko baldintzat hartzen dugu ere.



Langile ez dozenteen kontrataziorako arestian aipaturikoa baldintza aintzat hartuko da ere, hezkuntza ez baita soilik gela barruan gauzatzen den zerbitzu.

Aliatuak. Gure Ikastola irekia da, inguruari zabal zabalik dagoena. Gizartearen beharrezan eta borondateak ezagutzeko, beraz, behar beharrezkoa dugu laguntzaileen partaidetza. Era honetan lortuko dugu gizartearen beharrezanetara egokitu eta bertan integratzea.

Hizkuntz proiektua. Ikastolan lantzen diren hizkuntzen ikaskuntza-irakaskuntzari eta erabilerari dagozkien alderdiak biltzen dituen eta haien trataerari koherentzia ematen dion egitasmoa da. Ikastolaren barruan hizkuntzekin zerikusia duten esparru guztiak biltzen ditu. Ikastolan lantzen diren hizkuntza guztien trataera bateratua ere hartuko du bere gain.

Hizkuntzaren baliagarritasuna bermatzerakoan eta hura erabiltzerakoan erosotasuna garatzen den neurrian, hizkuntza bat erabiltzeko motibazioa berez handituko da. Proiektu estrategikoa da: ikastolako eremu guztietan eragiten du eta komunitate osoaren ardura eta parte-hartzea eskatzen du.

Proiektu honen bidez, ikastolok marko orokor bat garatu dugu ikastolako hizkuntza bakoitzaren inguruan sortutako proiektuak uztartzeko, hizkuntzaren irakaskuntzan erabilitako ikuspegi eta metodologia guztiak bateratzeko, hizkuntzaren erabilera instrumentalaren eraginkortasuna curriculum osoan hobetzeko, eta hizkuntzaren irakaskuntzaren eta hizkuntza gutxituaren gizarte-sustapenaren arteko lotura egokiak sortzeko bideak irekitzeko.

Europar bizitzeko eta bertan integratzeko, Euskaraz eta gaztelaniaz aparte, euskaldunok beste europar hizkuntzak menderatzea beharrezkoa ikusten dugu.





Eleaniztun izateak, abantaila instrumental, profesional eta batez ere, sozialaz gainera, baditu, adituen ustez, gizabanakoaren garapenari begira beste abantaila batzuk: pentsaera sortzailegoa eta adimenaren malgutasun handiagoa erdiesten da, komunikatzeko eta harremanetarako gaitasun gehiago lortzen da, hizkuntza gehiago ikasteko erraztasuna lortzen da. Hori dela eta, ingelesarekin murgiltze goiztiarra erabiltzen dugu.

L2: Berritzaileak metodologia, teknologia, jasangarritasuna

✚ Teknologia berrien ezarpena ezinbesteko baldintza da XXI. mendean kalitatezko hezkuntza bat bermatzeko. Ikastolak, etengabe lanean jardungo da ikasleak atal honetan janzten. Ikasle digital hiritar digitalerako bidea ematen ari gara. Horregatik, teknologia pedagogiaren menpe jarri dugu beti ere erabilera arduratsua bultzatuz.

✚ Testuinguru ekologikoa- Jasangarritasuna. (bioeraikina, materiala, ongizatea, jantokia...)

Inguru naturalaren zaintza eta inguruarekiko errespetua Ikastolaren funtzezko oinarriak dira eta honek kurrikulamaren baitan islada zuzena izango du. Halaber ingurumenaren arloan burutzen diren jarduerak berezko urteko plangintza bat izango dute non zehaztuko diren zelako ekintzak burutzen diren gaiaren garapenerako. Jasangarritasunaren kontzeptua ardatz nagusi bat izango da naturarekiko sentikortasuna bultzatuz eta eguneroko bizitzan umeengan jokabide zuzen bat barneratuz.

L3: Ikastolako kudeaketa iraunkorra egitea baliabideen erabilpen egokia eginez eta ikastolaren etorkizuna bermatzen duena

Bideragarritasuna: talde lana gurasoekin etorkizuneko ikastola eraikitzen joateko.



L4: Ikastolaren izaera, eredia eta egiten duguna komunitateari eta herriari zabaldu.

✚ Partizipazioa eta komunitate sena. Geure Ikastola agente guztien partaidetzan oinarriturik dago, denon artean komunitate aktibo eta eragilea osotzen dugularik. Ikastola ez da zerbitzu soil bat, denon artean osotzen dugun bizi proiektu bat baizik eta, zentzu horretan, Ikastolara umea ekartzeak, esanahi berezia badauka, geure proiektuaren kide bihurtzea suposatzen baitu. Ikastola ez da beste zerbitzu bat, askoz ere gehiago da; Ikastola sentitu, bizi eta maitatzen den erakundea behar du izan. Horretarako partaidetza - maila ezberdinetan- sustatzen dugu, komunikazio aukerak zabalduz eta ikuspegi edo balorazio guztiak kontutan hartuz. "Pertsona bat, boto bat", hauxe da geure kooperatiba kudeaketaren oinarria.

✚ Komunikazioa. Bizi dugun aldaketa garai honetan oso garrantzitsua da ikastolako Plangintza Estrategikoa (estrategia) eta hortaz, Komunikazio Plan bat ondo garatuta izatea. Batak bestearekin Ikastolan eskaintzen dugun irakaskuntza eta zerbitzu desberdinei koherentzia, kohesioa eta jarraipena emango diolarik.

Informaio-komunikazio hartzaille-emale potentzialak identifikatu behar ditugu eta gaur egungo gizarte testuingurua kontutan izanik horiengana iristeko beharrezkoa dan estrategia finkatu behar da. Horrez gain, **informazioa modu eraginkor batean helarazteko aukerak ematen dituzten kanalak aztertuko behar ditugu**.

Helburuaren arabeko testu ezaugarriak definitu behar dira eta ekintzen planifikazioa zehaztuko duen egutegia markatu: noiz, zer argituko duen dokumentua izatea du helburu lan honek.

Bestalde, Ikastola osatzen dugun partaide guztion arteko komunikazioa (bi-direkzionala) hobetuko dituzten inizatibak proposatuko dira. Ikastolako langile, guraso eta ikasleen arteko komunikazio estuago



batek denonak diran helburuak bizkorrago, oztopo gutxiagorekin, asebetetze maila haundiago batekin eta azken finean hobeto lortzeko aukera emongo digula benetan uste dogulako.

6. ANTOLAKETA ETA KUDEAKETA EREDUA

Ikastolakoko antolaketaren oinarriak:

1. **Komunitate sena.** Ikastola osotzen dugunen arteko hartu-eman, partaidetza, inplikazioa... proiektuari egunez egun bizitza eta sendotasuna ematen dio.
2. **Langileriaren partaidetza eta inplikazioa** lan taldeetan, berrikuntza proiektuetan eta etengabeko formazioan Ikastolaren ardatz nagusi bat da.
3. **Kooperatiba izaera.** Ikastola ERKIDeko partaide da eta bereak egiten ditu pentsamendu kooperatiboaren ardatzak.


BALOREAK	AZALPENA
Elkartasuna	Norbanakoa guztiz garatzeko bide bakarra besteekin elkartzea da. Helburu berdina lortzeko taldean lan eginaz eta erantzukizuna taldean hartuta
Erantzukizuna	Bazkideen erantzukizuna da kooperatibaren funtzionamendua egokia izatea baita, botere publiko eta pribatuetatik independente mantentzekoa ere
Demokrazia	Kooperatibako kideek modu demokratikoan guztien artean, parte hartzen dute lanean, bozketan, erabakiak hartzen... "Pertsona bat, boto bat".
Berdintasuna	Kooperatibako bazkideek erabakiak hartzeko aukera berdinak dituzte. Horretarako beharrezko informazioa jaso eta beraien iritzia emateko eskubidea dute.



Ekitatea	Kooperatiba barruko kideen artean partaidetzagatik jasotako konpentsaziorik balego banaketa ekitatez egingo litzateke. Irabazien banaketa egindako lan ekarpenaren arabera egingo da. Ikastolak ez ditu irabazi asmorik, beraz balore hau kontzeptu teoriko bat besterik ez litzateke izango.
Elkartasuna	Kooperatiben ekintzak ez dira interes pertsonal mugatuei erantzuten, kolektibitateari erantzuten dio.

IKASTOLAKO ORGANIGRAMA

Andramari Zornotzako Ikastola gizarte ekimenak Guraso Kooperatiba da. Kudeaketa autonomoa du eta herriari zerbitzua ematea du xede. Hezkuntza proiektua gure-gurea dugu, euskalduna, eleanitza, gertuko, irekia eta munduari begira ikastolen mugimenduari atxikita gaude. Jarduera nagusia pertsonak bere osotasunean heztea eta euskal kultura transmitzea dira. Zornotzara eta inguru hurbilera bideratzen dugu hezkuntza eskaintza eta gizartearen eskakizunei arreta berezia eta etengabekoa jartzen diogu. Gure erantzuna, hortaz, berritzailea eta kalitatekoa da.





Ikastolak kudeaketa sistema garatzen gabiltza, etengabeko hobekuntzan oinarrituta. Etengabeko hobekuntzan murgildurik, geure lanari etekin handia ateratzen diogu denok bat egiten baitugu geure helburuen lorpenerako. Neurtzen ez dena ez da hobetzen, eta hori da kudeaketa sistemaren oinarria.

“Hobetzea denon ardura” da ikastolaren leloa.

7. BESTE BATZUK.

Prozesuetan txertatuta eta aipagarriak diren hauek ditugu:

- ★ Konfiantzaren Pedagogia.
- ★ Barne araudia.
- ★ Hezkidetza proiektua.
- ★ Bizikidetza eta KIVA proiektuak.
- ★ Heldutasun teknologikoa.